



Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Elkartegiko KABI612 eraikinak Repsol Fundazioak, Petronorrek eta BEAZek antolatutako II. "Energia eta Ekintzailtza" Jardunaldia jaso du

Zamudion elkartutako adituek ekosistema ekintzailearen finkapenaren aldeko apustua egiten dute, industria eszenatoki berriari aurre egiteko giltzarri gisa

-
- Emiliano López Atxurra Petronorreko presidentek "ausardia eta esfortzua" aipatu ditu ekintzailtzaaren ardatz gisa, eta Ignacio Egea Repsol Fundazioko presidenteordeak, berriz, "pertsona ekintzaile batek egin dezakeen akats larriena ez ekitea dela" gogoratu du.
-

Enpresa traktoreak edukitzearen garrantzia eta ekintzailtzaaren ekosistema eraginkorra finkatzeko beharra izan dira Repsol Fundazioak, Petronorrek eta BEAZek Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Elkartegiko KABI612 eraikinean antolatutako II. "Energia eta Ekintzailtza" Jardunaldian parte hartu duten batzuek aipatu dituzten giltzarriak. Ekitaldian, erakunde dinamizatzaileekin, ikastetxeekin, ekintzailtzari laguntzeko erakundeekin eta horrelako erakundeen babesetik sortutako enpresekin zuzenean erlazionatutako 60 profesional baino gehiagok hartu dute parte.

Ekitaldiaren inaugurazioa Imanol Pradales Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia eta Lurralde Garapenerako Diputatuaren eta Estibaliz Hernáez Eusko Jaurlaritzako Teknologia, Berrikuntza eta Lehiakortasun Sailburuordearen esku egon da. Biekin batera Emiliano López Atxurra Petronorreko presidentea eta Ignacio Egea Repsol Fundazioko presidenteordea egon dira.

Inaugurazioko hitzaldian, Emiliano López Atxurrak, bere iritziz ekintzailtzaaren oinarrian egon behar duten funtsezko bi puntuak aipatu ditu: enpresa alorreko ausardia eta esfortzua, alde batetik, eta proiektu berrien garapenerako aukera emango duen ekosistema eraginkorraren sorrera, bestetik.

Ildo berean, Ignacio Egeak esan du Repsol Fundazioaren eginbearra "gizarte energia askatzea" dela, gizartearen onurarako enpresa proiektu berriak sor daitezzen. Halaber, Lanbide Heziketaren alorrean Euskadin egiten ari den lana azpimarratu du, 5 ikastetxerekin esperientzia pilotu bat gauzatzen ari baita.

Jardunaldiaren egitura bi mahai ingurutan banatuta egon da. Lehenbizi, Euskadiko eragile dinamizatzaile garrantzitsuenetako batzuen ordezkariak hartu dute parte, Aitor Urzelai Eusko Jaurlaritzako Ekintzailtza, Berrikuntza eta Informazioaren Gizarte Zuzendariak; Ainara Basurko Beazeko Zuzendari Nagusiak; Eduardo Romero Repsol



fundazioaren Ekintzaileen Funtseko zuzendariak; Ander Izpizua Kutxabankeko Banka Handizkariko Zuzendariak eta Ander Izpizua BIC Gipuzkoa Berrilaneko zuzendari nagusiak.

Bigarren mahai inguruan, eragile dinamizatzaileetako batzuek bultzatutako enpresen zenbait adibide arrakastatsu aurkeztu dira. Horrela, bertaratuek zenbait enpresaren esperientziak ezagutu ahal izan dituzte: Beazen sehaskatik sortutako Ariadna Instruments; Repsol Fundazioak bultzatutako Xerolutions; BIC Berrilane lagundutako Wavegarden; eta Kutxabankek bultzatutako eta finantzatutako Asimov Ikastegia.

Jardunaldiaren ondorioak Emiliano López Atxurraren eta Ignacio Egearen eskutik etorri dira. Repsol Fundazioko Presidenteordeak adierazi duenez, ekintzaileekin izan duen esperientzian beti azpimarratzen da “ez soilik diruak edo finantzaketak duten garrantzia, baita prestakuntzak, harreman sareak edo fundazioarekin duten harremanean lortzen duten ikasketak dutena ere”. “Pertsona ekintzaile batek egin dezakeen akats larriena ez ekitea da”, esan du.

Amaitzeko, Petronorreko presidentea oso pozik agertu da ekitaldira agertu diren enpresen “izpiritu ekintzailea” ikusita, eta esan du, gure herrialdean, tamalez, “porrotak gizartearen aldetik penalizazioa jasotzen duela”, Estatu Batuetan ez bezala.

Bilbon, 2015eko azaroaren 3an